

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

PAGOMARI

PAGOMARI

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gidaren azalpena:

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketak tartekaturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu.

Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea.

Lanari funtzionalitaterik handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea.

Proiektua hauxe litzateke: beste ikasgelarako antzezpena prestatzea.

Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak, hizkuntzazko tailerrak alegia, antola daitezke.

Beste aldetik, istorio honek aukera ematen du "eztabaida" egiteko.

HELBURUAK:

- . Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazio antzeztua egitea.
- . Ekintzak azaltzen jakitea, ordena kronologikoari jarraituz eta irudia erabiliz.
- . Jarduera kontrolatuen bidez eta egoera kontestualizatueta, hizkuntzaren gaineko hausnarketa egitea.
- . Hiztegia eta esanahi berriak bereganatzea.

JARDUERAK:

Proiektua.- Antzezpena prestatzea: gidoi literarioa egokitzea, buruz ikastea eta antzezpena bidez grabatzea.

FASEAK:

a) Mezuaren planifikazioa:

Antzezpena prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan dago ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera.

Hori egiten dugunean, KOHERENTZIAz arduratzen ari gara:

Gaiaren progresioa: ipuinak hari kronologikoari darraio.

Irakasleak hurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko,

aditz-denbora eta aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, haurrek

kontatzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

SEMANTIKA:

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: isilarazi, nazkatu, uxatu...

b) Testualizazioa: Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak, eta eman AHOSKATZE eta INTONAZIO EGOKIA.

AHOTSAK: Ondo zehaztuko ditugu narratzailea eta pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

- Gidoiaren egokitzapena egitea proposatzen dugu; hartara, rolak banatu ondoren, nork bere testua egokituko du, mezua aldatu gabe.

KOHESIOA

Izen-aditzen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura.

Aditz-denbora eta aspektua: denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a.

Ariketak:

AHOTSAK:

- Eman gidoi literarioa, egokitzeko.
- Eman testu idatzia, baina *take*-ak gaizki kokatuta. Haurrek zuzendu beharko dute.

DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:

- Eman testu-zati bat deklinabide markarik gabe, osatzeko.

ADITZ-KOHESIOA: figura, hondoa, denborazko antolatzaileak eta aditz-aspektua:

- Kendu narratzailearen testuei antolatzaileak eta eskatu jartzeko.
- Eman narratzailearen testua aditz-aspektua gaizki jarria duela, eta jarri denon artean ondo, zergatikoa azalduz.

ELEMENTU EZ-LINGUISTIKOEN esanahia:

Antzezpena prestatzerakoan, erabaki KEINUAK eta INTONAZIOA, hau da, ekintzak nola egin behar diren eta nola adierazi behar diren.

IRUDIA:

Planoak: lehen plano eta plano orokorra.

Dekoratuak: mezuaren eta kolorearen arteko erlazioa.

ATREZZOA.

PUNTUAZIOA:

Antzezpena prestatzerakoan, bai gidodia egokitzerakoan, bai irakurketa egiterakoan, ohartarazi puntuazioaren balio semantikoaz.

ADITZONDOAK:

Akotazioetan, idatzi egitea erabaki den interpretazioa; hartara, aditzondoak erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Gidoi literarioa:

PAGOMARI: A! Animaliak mendira itzultzen hasi dira. Negua amaitu da behingoz, eta belarra biziberritzen ari da.

IGELA: (AD LIB) Hara! Mandeulia! Izugarri gustatzen zaizkit mandeuliak. (AD LIB)

PAGOMARI: Artzainak ere laster itzuliko dira. Baina, orain, mendirako automobil handi horietan etortzen dira, edo motorrez. Ni, ordea, oinez etortzen nintzen. A! Barkatu, zuek ez dakizue, baina ni artzaina izan nintzen behin.

IGELA: (AD LIB-ak tartean)

PAGOMARI: Udaberritik udaren amaierara arte, artaldea larre hauetara igotzen nuen bazkatzera.

PAGOMARI: (AD LIB) Ez pentsa, lan gogorra zen! Bide luzea egin behar izaten nuen oinez.

PAGOA: (BARRE)

PAGOMARI: Gainera, batzuetan hotz, besteetan bero, beti eguraldiaren gorabeheren menpe. Hori bai, ahal nuen guztietan, neure pago kuttunaren azpian esertzen nintzen.

PAGOA: (AD LIB)

PAGOMARI: Luzaz egoten nintzen haren azpian.

Hortik datorkit izena: "Pagomari", pagoak gogoko ditudalako.

PAGOA: (AD LIB) Ez izan gezurtia, Pagomari.

PAGOMARI: Bueno, nitaz ipuin asko eta asko entzun dira, baina ez egin jaramonik. Benetakoan nik kontatuko dizuet!

PAGOA: Pagomari, ez du balio gezurrik kontatzeak! Egia esan behar da, gero! Ez ahaztu!

IGELA: (AD LIB-ak tartean)

PAGOMARI: Ondo da, egia baino ez dut kontatuko. Ba, hauxe duzue nire istorioa. Behin batean, bazen pago eder bat Aralarren, eta udan pagatxaz bete-beteta egoten zen.

IGELA: (AD LIB) Zer polita! Tira, segi! Kontatu, kontatu!

PAGOMARI: (OFF) Pagatxak pagoaren ezkurak dira, pagoaren fruituak. Imajinatuko duzue zein den pagatxen patua: zuhaitz bilakatzea edo animalia batega jatea. Bada, udazkena heldu zenean, pagoari hosto guztiak jausi zitzaizkion, eta pagatxak ere bai, noski, bat izan ezik! Haizeak gogor jotzen zuen arren, pagatxa hura ez zen erortzen.

PAGOA: E, aska zaitetz! Datorren udaberrian beste pagatxa batzuk sortuko dira; ezin zara hor geratu. Zer demontre gertatzen zaizu?

MARI: Nik mundua ezagutu nahi dut, eta pagoak ez dira inoiz lekuz aldatzen!

PAGOA: Hara bestea! Hori burutazio ederra! Eta zer izan nahi duzu? E?

MARI: Gizakia.

PAGOA: Hori ezinezkoa da, eta are gutxiago betiko!

MARI: Betiko ez bada, denbora pixka baterako bai. Ados?

PAGOA: Aizu, nik ez dut baietzik esan, e?

MARI: Ama, mesedez, bete ezazu nire desira hori, eta itzultzen naizenean, ikusi dudana guztia kontatuko dizut. Ongi?

PAGOA: Bueno, ondo da, baina nik esan arte! Ez ahaztu hori!

MARI: Iufala!

PAGOA: (AHAPEKA) Begira, artzain bat dator. Berorrek hartuko zaitu eta bere etxera eramango zaitu.

INAZIO: (GAINEAN) Bai, Gorri, bai! To! Eta beste hauek barrura. (AD LIB) Goseti hori! Gehiago nahi duzu? Bai, hartu beste bat.

GORRI: (AD LIB)

PAGOA: Laster neska polit bat izango zara.

PAGOMARI: (OFF) Basoan zehar zebilen Inazio, udazkeneko azken fruituak biltzen emazteari eramateko.

INAZIO: (AD LIB) Beste bat! (AD LIB) INAZIO: (AD LIB) Hara! Oraindik adarrean? Zatoz nirekin. (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Kontu handiz tiratuz, adarretik erauzi eta goxo-goxo otzaratxoan jarri ninduen.

INAZIO: (AD LIB) Begira! Udazkena laster joango da, baina pagatxa hau adarretik zintzilik zegoen oraindik.

NEKANE: Handia da gainera!

INAZIO: (OFF) Eta ona dago.

NEKANE: Bai, oso itxura ona du.

INAZIO: (OFF) Jan ezazu, zuretzat ekarri dut.

NEKANE: Benetan?

INAZIO: (OFF) Jakina!(ON)

NEKANE: Inazio, beste behi bat ekarri dut etxera.

INAZIO: Beste behi bat? Zertarako, baina? Gorri daukagu eta.

NEKANE: Bai. Baina zahartu egin da, eta ia ez du esnerik ematen.

INAZIO: Ez duela ematen?

NEKANE: Oso gutxi.

INAZIO: Bai zera!

01.12.22.10 ALDI BEREKOA)

PAGOMARI: (OFF) Inazioaren emazte Nekane jan egin ninduen! A zer sustoa hartu nuen! Baina sustoa baino ez zen. Handik bederatzi hilabetera, ni jaio nintzen! Harrigarria, ezta?

ERROTULUA: "Zortzi urte geroago" PAGOMARI: (OFF) Oso etxe alaia zen gurea. Eta ni neskato bizkorra eta zintzoa nintzen. Eta langile fina!

INAZIO: (AD LIB) Hementxe bai ondo, epeletan! Afaria prest dago?

MARI: Kaixo, aita.

INAZIO: Arratsalde on, poxpolina.

MARI: Zer dugu afaltzeko?

INAZIO: Ez dakit. Dagoena jango dugu.

NEKANE: Zer moduz eskolan?

INAZIO: (AD LIB)

MARI: Gaur bakar-lana eduki dugu, eta oso ondo egin dut.

NEKANE: Benetan? Harro nago zutaz, laztana. (AD LIB)

INAZIO: Mari, bihar feriara joan beharko dut. Beraz, ezin joango naiz zurekin mendira. Ondo zaindu ardiak, e?

MARI: Bai, aitatxo. Nire kontu!

MARI: Ea, Gorri, goazen! Etorri nirekin! Tira, goazen!

GORRI: (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Eta aitari agindu bezala, hurrengo egunean mendira igo nintzen geure artaldeak zaintzera.

URTZI: Hemen beste bat! (AD LIB) Egin hegan, arkanbelea! (BARRE)

MARI: Etorri, Gorri, hemendik.

GORRI: (AD LIB)

MARI: Arinago, Gorri! Ez gara inoiz helduko!

GORRI: (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Basoan zehar nindoala, bat-batean mutil batekin egin nuen topo. Beste artzain bat zen: Urtzi.

URTZI: (AD LIB)

MARI: Gorri! (AD LIB) Hori mutil ederra! (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Eta alaia ere bazen. Oso gogoko zituen animaliak.

MARI: Kaixo!

URTZI: (AD LIB) Epa! Ni Urtzi naiz. Eta zu? (AD LIB)

MARI: Ni, Pagomari. (AD LIB)

URTZI: Sarri etortzen zara hona?

MARI: Bai, artaldea daukagu hemengo larreetan.

URTZI: Guk ere bai. Orain zomorroak harrapatzen nenbilen. Harrapatuko ditugu elkarrekin?

MARI: Bai, goazen.

URTZI: Zatoz!

MARI: Aurrera ba! Gorri, etorri, bagoaz eta!

GORRI: (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Harrezkero elkarrekin ibiltzen ginen ahal genuen guztietan. Lagun handiak ginen.

URTZI: (OFF) (ON) Harrapaketan jolastuko dugu?

MARI: Ongi. Baina zuk harrapatu behar nauzu ni. (AD LIB)

URTZI: Ederto. (AD LIB) Harrapatu zaitut! (AD LIB)

MARI: (AD LIB)

URTZI: (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Ezin hobeto pasatzen genuen. Harrapaketan eta ezkutaketan jolasten, eta elkarri kili-kiliak egiten ematen genituen arratsaldeak.

MARI: Ai! Aurkitu nauzu! (AD LIB)

URTZI: (AD LIB)

MARI: Kili-kili-kili-kili

URTZI: (BARRE) (AD LIB) Kili-kili

MARI: (BARRE)

PAGOMARI: (OFF) Baina gehien atsegin genuena behia zirikatzea zen. Gaixoa urduri jartzen zen eta izututa, arrapalada bizian hasten zen, nora joan ere ez zekiela.

URTZI: Pagomari nik uste dut, uste dut (AD LIB)

MARI: (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Denbora pasa ahala, eta ia konturatu barik, bion arteko harremana sakonduz eta sendotuz joan zen.

GORRI: (AD LIB)

PAGOA: (AD LIB)

MARI: Urtzi, asko maite zaitut!

URTZI: Nik ere asko maite zaitut zu!

MARI: (AD LIB)

URTZI: (AD LIB)

MARI: (AD LIBak)

PAGOMARI: (OFF) Hain zoriontsu nintzen ze, erabat ahaztuta nengoen nire jatorriarekin. Eskolatik etxera etorri eta lehenengo gauza etxeko lanak egiten nituen, gero Urtzirekin jolasteko denbora gehiago izateko. Ez nintzen konturatzen egunen batean basora itzuli beharko nuela nahitaz.

INAZIO: Mari, gaur artaldeak baserrira ekarri behar ditugu, eguraldiak okerrera egin baino lehen.

MARI: Ondo da.

INAZIO: Goazen ba lehenbailehen! Zu joan Intzezelaira eta ekarri hango ardiak. Ni Errenagara joango naiz.

MARI: Gorri! Gorri! Non zaude? Ardien bila noa. Ai, benetan hoztu du! (AD LIB)

Etorri ba, Gorri! Gorri! Gorri! Non sartu zara? Gorri! Zatoz hona! Gorri! Baina, non zaude? Gorri!

PAGOMARI: (OFF) Neguko giroa zegoen. Laster egingo zuen elurra. Ez nekien zergatik, baina zerbait gertatuko zitzaidan susmoa nuen. Hasteko, Gorri aurkitu ezinik nenbilen. Eta gainera, Urtzi ez zen inondik ere ageri.

MARI: Aaaa! Hara non zauden! (AD LIB) Tira, Gorritxo, zatoz nirekin. Goazen. Ea, goazen, Gorri. Tira.

GORRI: (AD LIB-ak tartean)

PAGOA: (AD LIB)

GORRI: (AD LIB)

MARI: Ez zaitetz ba burugogorra izan! Joan behar dugu! Artaldea bildu behar dugu eta! (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Azkenean, gure txokoa zegoela aurkitu nuen. Pagoaren aldamenean bazkatzen zebilen patxada ederrean. Baina ez zidan jaramonik egiten! Iluntzen ari zuen, eta oraindik artaldea bildu behar nuen etxera jaisteko. Halako batean ahots ezagun bat entzun nuen.

PAGOA: Mari! Mari! Zatoz hona!

MARI: E?

PAGOA: Uztazu behia bakean, eta zatoz hona, Mari.

MARI: (AD LIB) Ahots hori?

PAGOA: Ni naiz, zure ama! Hurbildu zaitetz hona!

MARI: (AD LIB) Ez, ez dut nahi!

PAGOA: Mari, zertan geratu ginen? Ez duzu gogoratzen ala?

MARI: Bai, gogoratzen naiz. Baina ez dut nahi! Oso zoriontsua naiz, eta horrela jarraitu nahi dut!

PAGOA: Hori ezinezkoa da, pagoa zara eta ez besterik!

MARI: Baina, ama, nik gizakia izaten jarraitu nahi dut.

PAGOA: Zeure hitza eman zenidan, Mari, eta heldu da ordua!

MARI: (AD LIB) Ez! (AD LIB)

GORRI: (AD LIB)

MARI: Etorri! Goazen azkar, Gorri! (AD LIB)

PAGOA: Etortzeko hona! Zatoz oraintxe bertan! Mariiii!

MARI: Aita! Ama! Non zaudete? Ama, non zaude baina? (AD LIB) Non dira nire gurasoak? Aita, etorri! Bakarrik nago! Ama! Amatxo! (AD LIB) Aita! Ama! Zuen

laguntza behar dut! (AD LIB) Etorri nirekin! Mesedez! (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Etxera itzuli nintzen, gurasoei laguntza eskatzeko. Baina heldu nintzenean, ez nituen ez ama ez aita aurkitu. Triste eta goibel nengoen. Nolatan utziko nuen ba zoriontasuneko bizimodu hura, zuhaitz bilakatzeko?! Guraso maitagarriak, eskola, Urtzi; dena utzi beharko nuen betiko. Gaua negar batean eman nuen. Hurrengo goizean, Urtzirekin gogoratu nintzen. Sikiera agur esaterik baneuka!

MARI: (ILUNPETAN) (NEGAR) (AHARRAUSI) (AD LIB) Urtzi ikusi behar dut zuhaitz bilakatu baino lehen!

MARI: Urtzi, Urtzi! Non zara, maitea? Urtzi! (AD LIB) Urtzi! (AD LIB) Urtzi! Baina, non zaude? Urtzi! Maitea! Zer egingo dut? Ai ene! Urtzi! Non sartu zara? Entzuten badidazu, erantzun, Urtzi! (AD LIB) Baina, non dago? (AD LIB) Urtzi! (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Bazter guztietan bilatu nuen, baina alferrik! Ez zegoen haren arrastorik inon ere. Banengoen ba ni egun hartan zerbait txarra gertatuko zitzaidala! Eta hala izan zen: ezin nituen gurasoak aurkitu, ezta Urtzi ere! Egund hartan maite nuen guztia galdu nuen. Desesperaturik, mendian gora eta behera ibili nintzen Urtzi aurkitzeko itxaropenarekin! Azkenenean gure txokora hurreratu nintzen, zuhaitz haren ondora.

MARI: (AD LIB)

PAGOMARI: (OFF) Guztiz etsita, pagoarengana jo nuen laguntza bila.

MARI: Ama, azken mesedea egin behar didazu, arren!

PAGOA: Nire esku badago, egingo dizut bai!

MARI: (AD LIB) Pago bilakatu baino lehen, Urtzi agurtu nahi dut, azken aldiz bada ere! (AD LIB)

PAGOA: (AD LIB) Badakizu non den? Mmm?

MARI: Ez. Bazter guztietan bilatu dut, baina ez dut aurkitu. Ez dakit non sartu den.

PAGOA: Ba beharbada joan egin da.

MARI: Ni agurtu gabe? Ezin liteke!

PAGOA: Egia da, asko maite zaitu.

MARI: (AD LIB) Nola dakizu zuk hori?

PAGOA: Ikusi egin zaituztet. Eta gainera berak esan dit.

MARI: Noiz?

PAGOA: Hemen dago, gurekin.

MARI: Non? Urtzi! Ez ezkutatu! Non zara? Urtzi! Urtzi! Non zaude, Urtzi? Orain ez da ezkutaketan jolasteko unea! Urtzi! Irten ba! Haserretu egingo naiz! Urtzi! Urtzi! Irten! Non zaude? Urtzi!

PAGOMARI: (OFF) Ezin zitekeen izan, ezin nuen sinetsi! Ni haren bila zoratuta eta hara non nire muturren aurrean zegoen! Adarra jo zidan, ondo jo ere! Baina ez, ez zen halakorik. Amak azaldu zidan hobeto.

PAGOA: Pagoa da, zu bezala!

MARI: (AD LIB) Esaidazu zein den!

URTZI: Hemen nago! Ezetz aurkitu!

MARI: (AD LIB) Urtzi, zergatik ez didazu ezer esan?

URTZI: Ez nintzen ausartzen, ez nekien zu pagoa ote zinen!

MARI: Erabat ahaztuta nengoen. Hain nintzen zoriontsu!

URTZI: Ni ere bai. Ondo gogoratzen dut elkarrekin genbiltzanean!

MARI: (AD LIB)

PAGOA: Ai ene!

URTZI: (AD LIB) Baina amaitu da. Hemendik aurrera, hementxe egongo gara, mugitu ezinik.

MARI: (AD LIB) Agian ez! Itxaron pixka batean!

MARI: Ama, beste mesede bat eskatu behar dizut!

PAGOA: (AD LIB) Berriro? Urtzi ikusi duzu. Zer gehiago nahi duzu ba?

MARI: Begira, ni pago bihurtuko naiz. Baina, noizean behin, gizaki bilakatu nahi dut, Urtzirekin basoan zehar ibiltzeko. Ados?

PAGOA: (AD LIB) Beti eskean, e? Ez duzu inoiz etsitzen?!

MARI: Ama, arren, ez zaizu ezer kostatzen!

PAGOA: Egia! Ez zait ezer kostatzen. Horrexegatik ez dizut ezer emango.

MARI: Nola izan zaitezke horren bihozgabea?

PAGOA: Begira, Mari, oraindik oso gaztea zara, eta bada ez dakizun gauzatxo bat.

MARI: (AD LIB) Zer ez dakit nik?

PAGOA: Ba, neguan, historik gabe gaudenean, mendian artzainik ez dabilenean, baso honetako pago asko gizaki bilakatzen gara.

MARI: Zer diozu?

PAGOA: Horixe! Pagoaren espirituak utzi egiten ditu enbor hauek, eta loak hartzen ditu udaberrira arte.

MARI: Bai zera! Txantxetan ari zara?

PAGOA: Ez, egiatan diotsut, alaba.

MARI: (AD LIB) Beraz, Urtzirekin ibili ahal izango naiz? (AD LIB)

PAGOA: (OFF) Bai. Baina orain, aukera (ON) ezazu leku egoki bat bertan errotzeko.

MARI: Urtziren ondo-ondoan jarriko naiz.

PAGOA: Ongi da.

MARI: Maite zaitut, Urtzi.

PAGOA: (AD LIB) Orain zorientsu biziko gara betiko.

PAGOMARI: Hauxe da nire istorioa. Beste era batera kontaktzen badizute, zuen esku dago sinestea edo ez. Agian, beste pagoren baten istorioa izango da!

IGELA: (AD LIB) Ez dakit ba, Pagomari. Ez zara berriro gezurretan ibiliko, ezta?

MARI: (BARRE)

IGELA: (BARRE) (AD LIB)

PAGOA: (BARRETXOA)

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-06-25**

LEGE GORDAILUA: : SS-1583/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**